



**ARANTZako UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## 2016KO ABUZTUAREN 25EKO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.

**Batzarra:** Bilera berezia.

**Deialdia:** Lehenengoa.

**Eguna:** 2016.08.25

**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Mentxu Peña Lizarazu and.

Ander Almandoz Indakoetxea jn.

Igor Ugalde Salazar jn.

Juan M. Gonzalez Burguete jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn., kanpoan dagoelako.

Iñigo Sarrias Zoco jn.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespina.
- 2.- Lourdes Mutuberria Picabea: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Francisco Michelena Petrirena jn.: oihan probetxamendu eskaera.
- 4.-Juan Miguel Sein Apeztegui jn.: oihan probetxamendu eskaera.
- 5.-Mendiko lanen esleipena.
- 6.-Besten balorazioa.
- 7.-Garbitze lanak egiteko interesdunen zerrenda.
- 8.-Aientsa auzoko bidea moldatzeko finantza planaren onspina.
- 9.-Alkatearen ebazpenak.
- 10.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2016ko abuztuaren 5ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, aldaketa honekin: 6. puntuak: Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga eskatu behar diren obra guztiei kobratzea ondorengoa izan ezik: margotze lanak, zerrakurak egitea, bideak moldatzea eta herriko sareko ez den ura hartzeko eta uraren instalakuntza berriak hala zaharrak berritzea.

**2.- LOURDES MUTUBERRIA PICABEA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Lourdes Mutuberría Picabea andreak, Morenoren Borda alderdian, pinu, intxaurrondoa, gaztaina eta haritz amerikarren probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 5. poligonoko 29. B. lur zatian eta entresaka 5. poligonoko 29.A eta 24.E lur zatietan).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Lourdes Mutuberría Picabea andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

**3.-FRANCISCO MICHELENA PETRIRENA JN.: OIHAN POROBETXAMENDU ESKAERA.**

Francisco Michelena Petrirena jaunak, Aspanza alderdian, pinu insignisen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa 2. poligonoko 21.lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Francisco Michelena Petrirena jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

**4.-JUAN MIGUEL SEIN APEZTEGUIA JN.: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Juan Miguel Sein Apezteguia jaunak, Gaisenberro alderdian, 30 akazien probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (entresaka 5. poligonoko 706. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juan Miguel Sein Apezteguia jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

**5.-MENDIKO LANEN ESLEIPENA.**

Udal honek Basarte S.L. enpresak egindako proiektuan bildua diren hainbat pista (Iturpo, Buruitza-Itsaszelaieta, Zerradoko Borda-Ametxoko, Tuaneko Borda-Amekurrun, Senberroko Borda-Idoia, Ekaitza, Soraeta-Negusoro eta Muniltzako pistak) moldatzeko lanak esleitzeko gonbidapenak igorri zituen (52.447,88 euroko lanak, BEZ barne).





## ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Hauek izan dira aurkeztutako proposamenak:

- Iñaki Taberna Iturria jn.
- Peio Aguinaga Macicior jn.
- Sasoi eraikuntzak S.L.
- Mikel Ubiria S.L.
- Berdabio Basogintza S.L.

Baldintza pleguaren arabera, 1. gutunazala ireki da lehen.

Iñaki Taberna Iturria jaunak eta Peio Aguinaga Macicior jaunak ez dute aurkeztu eskatzen diren dokumentoak. Ondorioz, kanpoan gelditzen dira.

Ondoren 2. gutunazala ireki da eta pleguak ezarritako irizpideak baloratu dira:

ENPRESA	PROGRAMAZIOA/PLANIFIKAZIOA	EGITEKO EPEA	BERME EPEA
MIKEL UBIRIA S.L.	18 PUNTU	15,00 PUNTU	15,00 PUNTU= <b>48,00</b>
SASOI ERAIKUNTZAK S.L.	20 PUNTU	10 ,00 PUNTU	11,25 PUNTU= <b>41,25</b>
BERDABIO BASOGINTZA S.L.	16 PUNTU	13,12 PUNTU	15,00 PUNTU = <b>44,12</b>

Ondoren proposamen ekonomikoak ireki dira. Hauek izan dira aurkeztutako proposamenak eta puntuazioa:

- Mikel Ubiria S.L.: 49.909,34 euro, BEZ barne: 49,92 puntu.
- Sasoi eraikuntzak S.L.: 50.349,96 euro, BEZ barne: 49,48 puntu.
- Berdabio Basogintza S.L.: 49.825,49 euro, BEZ barne: 50,00 puntu.

Enpresa bakoitzak lortutako puntuazioa hauxe izan da:

- MIKEL UBIRIA S.L.:** 48,00 puntu + 49,92 puntu: **97,92 puntu.**
- SASOI ERAIKUNTZAK S.L.:** 41,25 puntu + 49,48 puntu: **90,73 puntu.**
- BERDABIO BASOGINTZA S.L.:** 44,12 puntu + 50,00 puntu: **94,12 puntu.**

Ondorioz, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Mikel Ubiria S.L.enpresari aipatutako bideak moldatzeko lanak esleitzea, 49.909,34 eurotan, BEZ barne, beti ere aurkeztutako bere proposamena eta Basarte S.L. enpresak egindako proiektuaren arabera, proposamen hoberena delakoz.

2) Mikel Ubiria S.L. enpresari jakinaraztea kontratua sinatzeko pleguaren 7. puntuari adierazten diren dokumentoak aurkeztu beharko dituela lanak hasi ahal izateko.

3) Mikel Ubiria S.L. enpresari jakinaraztea lehentasuna emanen zaiola ehiza kotoari ukitzen dituen pistei eta eskatzea hauetan hastea lanak.

4) Halaber jakinaraztea obrak 2016ko urriaren 15erako eginak egon behar dutela.

3) Ebazpen hau enpresa guztiei jakinaraztea.

### 6.-BESTEN BALORAZIOA.

Kultur Batzordeko kideak azaldu dute aurtengo besten balorazioa. Orokorrean oso ona izan dela diote eta herritarren balorazioa falta dela.

Alkateak aipatu du petardoan afera. Kargua hartu zaie postuak jarri dutenei eta aztertu beharko dela dio hurrengorako.

### 7.-GARBITZE LANAK EGITEKO INTERESDUNEN ZERRENDA.

Udal honek herriko eraikinen garbitasuna egiteko Nafarroako Enplegu Zerbitzuak argitaratutako diru laguntza deialdiaren bidez (langabeak kontratatzeke interes orokorreko edo

Herriko Plaza, 7

31790 ARANTZA (Nafarroa)

☎ 948 634 005

☎ 948 928 919

arantza.udala@arantza.eus

www.arantza.eus

sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko 2715/2015 ebazpena) bi pertsona kontratatu zituen. Laguntza uztailaren 31a arte izan zen.

Ondoren Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emandako 1368/2016 ebazpenaren bidez, deialdi berria argitaratu zen gazte langabeak lan munduan txertatzen laguntzeko. Eskaintza publikoa egin ondoren ez da inor aurkeztu.

Egoera honetan Udalak erabaki du herrian bando bat jartzea interesa duenak izena emateko abuztuaren 24ko eguerdiko 14:00 arte.

Epean barne bi pertsonak eman dute izena: M. Dolores Iraola Maritorea andrea eta Encarnacion Indacoechea Maiz andrea.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Dolores Iraola Maritorea andreari eta Encarnacion Indacoechea Maiz andreari kontratua egitea, aldi baterako, jornada erdian eta irailaren 1etik abenduaren 31 arte, udal eraikinak garbitzeko.

2) Akordio hau bi interesdunei jakinaraztea.

## **8.-AIENTSA AUZOKO BIDEA MOLDATZEKO FINANTZA PLANAREN ONESPENA.**

Ikusirik Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariaren 220/2016 Foru Agindua, ekainaren 16koa, non "Aientsa auzoko bidea moldatzeko" izeneko inbertsioa presa handikoa dela deklaratu du eta 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Plan Arruntean sartu.

Ikusirik obraren plan finantziarioa onartu behar dela.

Kontuan hartuz Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren 2016ko uztailaren 29ko ebazpenaren bidez laguntza eman duela ere Udal honi aipatutako obra burutzeko.

Ikusirik obraren finantza plana:

-Obraren kostoa: 2.747,53 euro.

-Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioa diru laguntza: gastuaren %45,23 euro: 1.242,71 euro

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aientsa auzoko bidea moldatzeko plan finantziarioa onartzea.

2) Aipatutako plana Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.

## **9.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2016ko 106. ebazpenetik 114. ebazpena arte.

## **10.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

**Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:**



## ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

### 11.-SONIA LIZARDI ERRANDONEA AND.: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Sonia Lizardi Errandonea andreak, Entzelka alderdian, 33 alertzen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (entresaka 4. poligonoko 44.lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Sonia Lizardi Errandonea andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.



